



Andoaingo
Udala

**Udaleko langileek euskara-
ikastaroetara joateko
dituzten baldintzak
erregulatuko dituen araudia**

**Normas reguladoras de las
condiciones de asistencia
de los empleados municipales
a cursos de euskera**

I. Atala

Capítulo I

Xedapen Orokorrak.

Disposiciones Generales

1. Artikulua.- Araudiaren aplikazio-eremua.

1. Udal-langile finko nahiz interinoei, hala nola praktikaldikoei aplikatuko zaie araudi hau.
2. Hizkuntza-eskakizunen plangintzaren barruan daudenek eta kanpoan geratutakoek baldintza desberdinak izango dituzte.

Artículo 1º.- Ámbito de aplicación de la normativa.

1. La presente norma será aplicable a los trabajadores municipales tanto fijos como interinos, así como a los que se hallen en prácticas.
2. Contarán con distintas condiciones quienes estén integrados en el plan de perfiles lingüísticos y quienes no lo estén.

2. Artikulua.- Printzipio orokorrak.

1. Euskararen erabilpena udal-funtzionamenduan normaltzeko plangintza betetzeko eta udal-zerbitzu ezberdinetako beharrak betetzeko egoki den moduan programatuko da euskara-ikastaroetarako asistentzia.
2. Behin hasi eta gero behar bezala egiaztatutako arrazoi sendorik gabe euskara-ikastarora joateari uzten dionak araudi honen indarrez legozkioken eskubide guztiak galduko ditu.
3. Araudi honetako eskubideez baliatu ahal izateko ezinbestekoa izango da euskara-ikastaroak Udalak programatuak edo/eta aldez aurretik onartuak izatea.

Artículo 2º.- Principios generales.

1. La asistencia a los cursos de euskera será programada de forma que puedan cubrirse adecuadamente tanto las necesidades del plan de normalización del uso del euskera en el funcionamiento municipal como las necesidades de los distintos servicios municipales.
2. Aquel trabajador que una vez iniciada su asistencia al curso deje de asistir al mismo sin contar con una razón de peso debidamente justificada decaerá en todos los derechos que le correspondan con arreglo al presente reglamento.
3. Para poder disfrutar de los derechos del presente reglamento será condición imprescindible que los cursos de euskera hayan sido programados y/o previamente aprobados por el Ayuntamiento.

II Atala

Capítulo II

**Hizkuntza-eskakizunen plangintzaren
barruko ikasketak.**

**Estudios de carácter interno del Plan de
Perfiles Lingüísticos.**

3. Artikulua.- Atal honen aplikazio-eremua.

Atal honetan xedatutakoa aplikatuko zaie beren lanpostuaren hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data indarreango plangintzaldiaren barruan duten langileei. Edozeinetara ere atal honen aplikaziotik kanpora utziko dira administrazio publikoetan euskararen erabilpena normaltzeko zenbait neurri ematen dituen abuztuaren 3ko 238/1993 Dekretuan aurrikusitako derrigortasun-salbuespenez baliatzen diren langileak.

Art. 3º.- Ámbito de aplicación del presente capítulo.

Lo dispuesto en el presente capítulo será aplicable a los trabajadores que estén afectados por un perfil lingüístico cuya fecha de preceptividad se halle dentro del periodo de planificación en vigor. Aun así, quedarán fuera de la aplicación de este capítulo los trabajadores que se beneficien de las exenciones de la preceptividad previstas en el Decreto 238/1993, de 3 de agosto, de establecimiento de diversas medidas para la normalización del uso del euskera en las administraciones públicas.

4. Artikulua.- Ikastaroak egiteko baldintzak.

1. Atal honetako langileek eskubidea eta lehentasuna izango dute euskara-ikastaroak lanorduen barruan egiteko eta, beti ere, Udalaren

Art. 4º.- Condiciones para la realización de cursos

1. Los trabajadores comprendidos en el presente capítulo tendrán derecho y prioridad para realizar cursos de euskera dentro de sus horas de trabajo y,



Andoaino Udala

kargura joango dira matrikula-gastuak eta, kasua balitz, joan-etorriengatik garraio-gastuak.

Horretarako, egoera horretan dagoen langile bakoitzari berari dagokion ordu-kreditua aitortuko dio Andoaino Udalak. Aipatu ordu-kreditua Andoaino Udalak eta HAEE-IVAPek sinatutako lankidetzaren hitzarmenaren eta HAEE-IVAP-eko Zuzendariak 92.10.05ean hartutako Erabakiko Eranskinaren arabera eta langilearen euskara-maila kontutan izanda norbere lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ahal izateko beharrezko diren ikastorduetan kontutan hartuta finkatuko da.

2. Aurreko puntuan aipatutako ordu-kreditua agortzean nola baitere lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna egiaztatzean, hizkuntza-eskakizunen plangintzatik kanpora utzitako langileen baldintzetan egin ahal izango dituzte langile hauek euskara-ikastaroak, ez ordea lehen atal honetan finkatutako baldintzetan.

3. Dagokien lan-ordutegi arrunta betetzat aitortuko zaie ondoko euskara-ikastaroak egiten dituztenei:

- a). Barnetegitako ikastaroak.
- b). Eguneko bost ordutako ikastaro trinkoak, astelehenetik ostiralera.

Nolanahi ere, dedikazio bereziko osagarria asinatuta daukaten lanpostuetako langileak Udalaren eskura egongo dira ikastaroarekin bateragarri den moduan, beti ere lehentasuna ikastaroak izango duelarik.

4. Egunean bi edo hiru ordutako ikastaroak egiten dituzten langileei klaseetan eta joan-etorrietan emandako orduak lanordutzat aitortuko zaizkie, eta, bestelakorik jakinarazi ezean, sarrera-irteera fitxatu beharko dute. Ikastaroa lanorduez kanpora baldin bada lanorduez egingo da konpentsazioa, klaseetan nahiz joan-etorrietan emandako orduak adina lanordu jai hartuz. Azken kasu honetan, lanorduetatik konpentsazioko jaiordutzat har daitezkeenak zeintzu diren Zerbitzuko beharren arabera erabakiko da.

5. Barnetegitan edo ikastaro trinkotan leudekeen

en todo caso, los gastos de matrícula correrán a cargo del Ayuntamiento y, si fuera el caso, los gastos de transporte por desplazamientos.

Con dicho objeto, a cada trabajador que se encuentre en esa situación el Ayuntamiento de Andoain le reconocerá el crédito horario que le corresponda. Dicho crédito horario será establecido con arreglo tanto al convenio de colaboración firmado entre el Ayuntamiento de Andoain y el IVAP, como al Anexo de la Resolución adoptada con fecha 05-10-92 por el Director del IVAP, y teniendo en cuenta el número de horas necesarias para la acreditación del perfil lingüístico asignado al puesto de trabajo de cada uno de los trabajadores una vez tenido en cuenta el nivel de euskera de cada uno de ellos.

2. Cuando quede agotado el crédito horario al que se hace referencia en el punto anterior, así como cuando se acredite el perfil lingüístico del puesto de trabajo, los trabajadores que se encuentren en dichos casos podrán realizar cursos de euskera en las condiciones destinadas a los trabajadores que se hallen fuera de la planificación de perfiles lingüísticos, mas no en las condiciones establecidas en este primer capítulo.

3. Se les reconocerá como cumplido el horario de trabajo ordinario que les corresponda a aquellos trabajadores que realicen los siguientes cursos:

- a). Cursos de internado.
- b). Cursos intensivos de cinco horas diarias, de lunes a viernes.

En todo caso, los trabajadores de los puestos de trabajo que tengan asignado el complemento de dedicación especial, estarán a disposición del Ayuntamiento de forma que sea compatible con el curso al que asistan, pero teniendo prioridad, en todo caso, dicho curso.

4. A los trabajadores que realicen cursos de dos o 3 horas diarias se les reconocerán las horas destinadas a las clases y a los desplazamientos como horas de trabajo, y, salvo que les sea notificado en algún otro sentido, deberán fichar las entradas y salidas. Si el curso se realiza fuera de las horas de trabajo, la compensación se realizará con horas de trabajo, haciendo fiesta tantas horas de trabajo como las que se hayan destinado a las clases y a los desplazamientos. En este último caso, se resolverá con arreglo a las necesidades del servicio cuáles serán de las hs. laborales las que se puedan disfrutar por compensación como festivas.

5. A los trabajadores que se hallaren en internados o



Andoingo Udala

langileei, barnetegiak edo asteen bost eguneko ikastaro trinkoak dirauten garaian urteko ordutegiaren arabera lan egin beharreko larunbatak lan egindakotzat onartuko zaizkie.

6. Joan-etorri gastuei dagokienean, gaurregun norberaren etetik lanera joateko dituzten gastuetatik gorakoak bakarrik ordainduko dizkie Udalak euskarako ikastaroetara doazen langileei. Ondoko kasu hauek bereizten dira:

- Langilearen bizilekuaren (ikastaro trinkoen kasuan) edo langilearen lanlekuaren (egunean bi edo hiru ordutako ikastaroen kasuan) eta euskaltegiaren bitarteko joan-etorria egiteko garraio publiko erregularra baldin badago, garraio horretako joan-etorriaren kostua ordainduko da.
- Barnetegitako ikastaroak egiten dituzten langileei asteen bidaiak bat (joan-etorri bat, alegia) egitearen irizpidearen arabera ordainduko zaizkie garraio-gastuak, eta kasu honetan ere garraio publikoaren kostua ordainduko da baldin eta barne-tegiaren eta langilearen bizilekuaren baitar-tean garraio publiko erregularrik badago.
- Aurreko puntuetan aipatutako garraio publiko erregularrik ez balego, kilometraje gastuak ordainduko lirateke.
- Joan-etorriengatik gastuak hileko nominarekin batera ordainduko dira.
- Udalak badu, beti ere langileen zirkunstantzia partikularrak kontuan hartuta, baldintza orokor hauek ez baizik eta bestelakorik jartzeko aukera. Hori horrela, bada, banaka-banaka aztertuko ditu Udalak kasu ezberdinak, eta kasuan kasuko salbuespen motibatuak egin ahal izango ditu.

5. Artikulua.- Langileen betebeharrak.

1. HAEE-IVAP-ekin sinatutako lankidetzahitzarmenean xedatuarekin bat etorrita eta Udala Euskara Zerbitzuak emandako irizpideei jarraiki programatutako euskara-ikastaroetara inolako hutsegiterik gabe, %100ean alegia, joatea, arrazoi bazterrezinen bat izan ezik. Hutsegiteei lanera ez joatearen tratamendu berbera emango zaie; beraz, euskara-ikastarotik hutsegin ezkerro, lanera

kursos intensivos, durante el periodo en que se desarrollen los internados o los cursos de cinco días lectivos semanales, les serán computados como trabajados los sábados que les correspondieran con arreglo al horario laboral anual.

6. Con relación a los gastos de desplazamiento, el Ayuntamiento sólo abonará a los trabajadores que asistan a cursos de euskera, aquellos gastos que resulten superiores a los realizados por el trabajador en la actualidad por desplazarse de su domicilio particular a su puesto de trabajo. Se regulan los siguientes casos:

- En los casos en que exista transporte público regular para realizar los desplazamientos entre el domicilio del trabajador (en el caso de cursos intensivos) o del puesto de trabajo del trabajador (en el caso de los cursos de dos o tres horas diarias) y el euskaltegi, se abonará el coste del desplazamiento en dicho transporte público.
- A los trabajadores que realicen cursos de internado los gastos de transporte les serán abonados según el criterio de realizar un viaje semanal (es decir, desplazamientos de ida y vuelta), y en este caso también se les abonará el coste del transporte público si existiera el mismo de forma regular entre el internado y el domicilio del trabajador.
- Si no existiera el transporte público regular al que se ha hecho referencia en los puntos anteriores, se abonarán los gastos de kilometraje.
- Los gastos por desplazamientos serán abonados con la nómina mensual.
- El Ayuntamiento podrá optar, siempre que se dé la toma en consideración de circunstancias particulares de los trabajadores, por establecer condiciones de contenido distinto al de las presentes condiciones generales. Así, el Ayuntamiento estudiará uno por uno los distintos casos que se planteen, y podrá resolver excepciones debidamente motivadas en cada uno de ellos.

Artículo 5º.- Obligaciones de los trabajadores.

1. Asistir sin falta alguna, es decir, al 100%, a los cursos de euskera programados de acuerdo con lo establecido en el convenio de colaboración suscrito con el HAEE-IVAP y de acuerdo con los criterios establecidos por el Servicio municipal de Euskera, salvo que exista causa ineludible que lo impida. Las faltas al curso recibirán el mismo tratamiento que las no asistencias al puesto de



Andoingo Udala

ez joateagatiko eskaera eta/edo frogagiriak aurkeztu beharko ditu langileak.

2. Langileak, saihestu ezinezko lan-eginbeharrek euskara-ikastarora joatea galerazten diotenean, bere udal-departamentuko arduradunak hutsegitea zurutuz egindako agiria aurkeztu beharko du hutsegini eta ondorengo astearen barruan.
3. Behin norberaren lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data pasa ondoren hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko egiten den lehen deialdiko azterketara aurkeztu beharko du nahitaez langileak, baita, hala behar izanez gero, ondorengoetara ere.
4. Ordutegia ikasketa-zentruko ordutegira egokitu beharko bada ere, egutegia Udaletxekoa izango denez, ikasketa-zentruko egutegiaren barruan opor-egunak direnean langileak Udaletxean duen lanpostura joan beharko du bere lanak egitera. Egun horietan, ordea, ikastaroak ez du etenik izango, eta, beraz, ikastaroari nolabaiteko jarraipena emango zaio lanorduetan, ikastaroa ez etetzeko beharrezko irizten diren lanorduek euskara ikastera emanez. Alderantzizko kasuan, hots, udal-egutegiaren arabera opor-eguna baina ikasketa-zentruan laneguna denean, langileak ez du ikastarotik hutsegingo eta Udalak jaiegun arruntez konpentsatuko dizkio opor-egun horiek.

6.Artikulua.- Ikastaroetako asistentziaren kontrola eta emaitzak.

1. Udal Euskara Zerbitzua arduratuko da ikasketa-zentruen eskutik asistentzia-kontrola egiteaz eta kontrol horren berri Udalean euskararen erabilpena normaltzeko lanetaz arduratzen den organoari emateaz.
2. Aldez aurretik jasotako ikasmaita gaintitu ez eta errepikatu ahal izateko derrigorrezkoa izango da ikastaroan asistentzia bikaina eta jarrera egokia argi eta garbi frogatuta edukitzea. Edozeinetara ere, ikasmaita errepikatzeak ordu-kreditua murriztea dakar berarekin, espresuki besterik erabaki ezean behinik behin.
3. Ikasmaita bat bigarren aldiz eta jarraian errepikatu behar izateak urriaren 17ko 224/89

trabajo. Por ello, el trabajador deberá aportar las mismas instancias o documentos justificativos aportados por no asistir al trabajo.

2. Los trabajadores, cuando existan obligaciones laborales que le impidan asistir al curso programado, deberán presentar, dentro de la semana siguiente a la fecha de la falta, un documento por el que el responsable del departamento municipal justifique la no asistencia.
3. El trabajador deberá presentarse obligatoriamente al examen de la primera convocatoria que se realice para la acreditación de perfiles lingüísticos una vez transcurrida la fecha de preceptividad del perfil lingüístico que le corresponda, así como, cuando resulte necesario, a las convocatorias posteriores.
4. Como quiera que, aunque el horario haya de acomodarse al del centro educativo, el calendario será el que rija en el Ayuntamiento, cuando en el calendario del centro docente sea día no lectivo los trabajadores deberán asistir a trabajar a su puesto de trabajo. No obstante, durante esos días el curso no se verá interrumpido, puesto que se dará una determinada continuidad al mismo, dedicando el número de horas que se consideren necesarias para no interrumpir el curso, al estudio del euskera. En los casos contrarios, es decir, cuando a tenor del calendario del Ayuntamiento sea día festivo pero no así en el centro docente, el trabajador asistirá al curso y el Ayuntamiento le compensará con jornadas festivas ordinarias esos días de vacaciones.

Artículo 6º.- Control de asistencia a los cursos y resultados.

1. El Servicio municipal de Euskera se ocupará de realizar a través de los centros docentes el control de asistencia y de poner en conocimiento del órgano encargado de la normalización del euskera en el Ayuntamiento los datos relativos a dicho control.
2. En aquellos casos en que no se supere el nivel de estudios atribuido previamente, para poder repetir los mismos se deberán haber acreditado una asistencia óptima al curso y un actitud adecuada. Aun así, repetir el curso conlleva disminuir el crédito horario, salvo que expresamente no se resuelva algo distinto.
3. Repetir un curso por segunda vez y consecutivamente puede conllevar la apertura del



Andoingo Udala

Dekretuko 26.b) artikuluan xedatutako sabuespen-espidenteari ekitea ekar dezake.

expediente de exención establecido en el artículo 26.b) del Decreto 224/89, de 17 de octubre.

7.Artikularia.- Hizkuntza-eskakizunaren egiaztapena.
Norberaren lanpostuaren hizkuntza-eskakizunaren derrigortasun-data pasa eta hizkuntza-eskakizun hori eskuratzeko Udalak eskainitako ikastaroak egin ez eta hizkuntza-eskakizuna egiaztatzen ez duen langileari indarreango legeriak aurrikusitako xedapenak aplikatuko zaizkio.

Artículo 7º.- Acreditación de los perfiles lingüísticos.
Superada la fecha de preceptividad del perfil lingüístico del puesto de trabajo de cada uno de los trabajadores, para aquel que no realice los cursos ofertados por el Ayuntamiento ni supere el perfil lingüístico serán de aplicación las disposiciones previstas en la legislación en vigor.

III. Atala

Capítulo III

Hizkuntza-eskakizunen plangintzatik kanpoko ikasketak.

Estudios realizados fuera de la planificación de los perfiles lingüísticos.

8.Artikularia.- Atal honen aplikazio-eremua.
Atal honetan xedatutakoa aplikatuko zaie jarraian aipatzen diren langileei:

Art. 8º.- Ámbito de aplicación del presente capítulo.
Lo dispuesto en el presente capítulo será aplicable a los trabajadores relacionados a continuación:

- a).- Indarreango plangintzaldiaren barruan derrigortasun-datarik ez duten lanpostuetako langile finkoak eta interinoak. Alde batera uzten dira atal honi dagokionerako praktikaldiko funtzionariak.
- b).- Norberaren lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatua duten langile finkoak eta interinoak.
- c).- Norberaren ordu-kredituak agortu eta, halere, lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatu gabe daukaten langile finkoak eta interinoak.
- d).- Administrazio Publikoetan euskararen erabilpena normaltzeko arauak ematen dituzten dekretuetan xedatuaren indarrez derrigortasun-arau orokorretatik salbuetsita dauden langileak.

- a).- Los trabajadores fijos e interinos de los puestos de trabajo que no tengan fecha de preceptividad dentro de la planificación en vigor. Con relación al presente capítulo quedan exceptuados los funcionarios en prácticas.
- b).- Los trabajadores fijos e interinos que tengan acreditado el perfil lingüístico que corresponda a su puesto de trabajo.
- c).- Los trabajadores fijos e interinos que, habiendo agotado su crédito horario, aun así, no hayan acreditado el perfil lingüístico correspondiente al puesto de trabajo.
- d).- Los trabajadores exentos de las normas generales de preceptividad en virtud de lo establecido en los decretos que disponen las normas para la normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas.

9.Artikularia.- Ikastaroa egiteko baldintzak.

Art. 9º.- Condiciones para la realización del curso.

1. Lanorduetatik kanpora egingo dira ikastaroak.
2. Eskalduntze ikastaroak egunean bi edo hiru ordutako ikastaroak izango dira, eta ez da bi orduz azpiko ikastaroetarako lagun-tzarik emango, udako ikastaro trinkoe-tarako eta EGA eta alfabetatze ikastaroetarako izan ezik. Alfabetatze eta EGA ikastaroak gutxienez 120 ordukoak izan beharko dira, laguntza jaso ahal izateko.
3. Lanegun osoan diharduten langileen kasuan: astelehenetik ostiralera, egunean hiru ordutako ikastarora joaten den langileari ordu 1/2dik murrizpena aplikatuko zaio bere lanorduetan, eta

1. Los cursos se realizarán fuera de las horas de trabajo.
2. Los cursos de euskaldunización serán cursos de dos o tres horas diarias, y no se concederá ayuda alguna a los cursos inferiores a dos horas, excepto en el caso de cursos intensivos de verano y cursos de EGA y de alfabetización. Para tener derecho a la percepción de ayudas, los cursos de alfabetización y de EGA serán, como mínimo, de 120 horas.
3. En el caso de los trabajadores en régimen de jornada completa: el trabajador que asista de lunes a viernes a cursos de tres horas diarias, le será aplicada una reducción de hora y media en



Andoingo Udala

egunean bi ordutako ikastarora joaten denari ordubetekoa. Lanegun-errejimena osoa ez baizik eta partziala duten langileei, berriz, beren lanorduen araberrako murrizpen proportzionala aplikatuko zaie.

4. Udako ikastaro trinkoak hilabete batekoak izango dira, eta egun bakoitzeko ordu t'erdiko konpentsazioa aplikatuko zaio langileari bere lanorduen barruan.
5. Konpentsazio modura langileek jai har ditzaketen lanorduak normalean euskarako klase egun berean hartuko dira. Nolanahi ere, Zerbitzuko beharrak kontutan hartuta eta, beraz, Zerbitzuko arduradunarekin bat etorritz erabakiko da konpentsazio-ordu horiek guztiak edo batzuk zein egunetan hartu.
6. Arrazoi bat edo bestegatik klaserik ematen ez den egunetan hala nola klasera joan gabe geratutako egunetan ez da konpentsaziorik aplikatuko.
7. Matrikula-gastuen %30a Udalak ordainduko du.

10. Artikulua.- Langileen betebeharrak.

1. Aurreko artikuluan xedatutako baldintzez baliatu ahal izateko Udal Euskara Zerbitzuak aldeztatik ontzat emandako ikastaroak izan beharko dira, eta aipatu Zerbitzuak ontzat emango ditu helduen euskalduntze-alfabetatzea erregulatzen duten arauen barruan dauden ikastaroak.
2. Asistentzia, Udal Euskara Zerbitzuak hilabetero kontrolatuko duena, %90etik gorakoa izan beharko du aurreko artikuluan aipatu konpentsazioak mantenduz ikastaroan jarraitu ahal izateko.
3. Justifikazio beharbestekorik gabe asistentzia eskasa izandako langileek ez lukete hurrengo ikasturtean atal honetako baldintzetan ikastaroa egiteko aukerarik izango.

Azken xedapena

Honako Arau hauek indarrean sartuko dira Tokiko Eraentzako Jardunbide Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan xedaturikoari jarraiki, eta indarrean egongo dira Udalak berau aldatzea edo indargabetzea erabaki bitartean.

su correspondiente horario laboral, y al que asista a cursos de dos horas diarias una reducción de una hora. A los trabajadores en régimen de jornada parcial, no completa, por su parte se les aplicará la reducción proporcional a sus horas de trabajo.

4. Los cursos intensivos de verano serán de un mes, y al trabajador se le aplicará una compensación dentro de su horario de trabajo de hora y media por cada día de curso.
5. Las horas de que puedan disfrutar los trabajadores con carácter festivo como compensación, normalmente se disfrutarán el mismo día de la clase de euskera. Aun así, la fecha en que serán disfrutadas todas las horas a compensar o parte de ellas será resuelta teniendo en cuenta las necesidades del servicio y, por lo tanto, de acuerdo con el responsable del mismo.
6. Los días en que por una u otra razón no se imparta clase o no se asista no se aplicará compensación alguna.
7. El 30% de los gastos de matricula será abonado por el Ayuntamiento.

Artículo 10º.- Obligaciones de los trabajadores.

1. Para poder acceder a las condiciones establecidas en el artículo anterior, los cursos deberán contar previamente con el visto bueno del Servicio de Euskera, visto bueno que recaerá sobre aquellos cursos enmarcados dentro de las normas que regula la euskaldunización-alfabetización de adultos.
2. La asistencia, que será controlada mensualmente por el Servicio municipal de Euskera, deberá ser superior al 90% para poder continuar en el curso manteniendo las compensaciones a las que se hace referencia en el artículo anterior.
3. Los trabajadores que hayan tenido una asistencia deficiente sin que haya sido suficientemente justificada, no tendrán opción a realizar durante el año lectivo siguiente curso alguno en las condiciones referidas en el presente capítulo.

Disposición Final

Las presentes normas entrarán en vigor de conformidad con lo establecido en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases de Régimen Local, y permanecerán vigentes hasta que por el Ayuntamiento se acuerde su modificación o derogación.